## Manifiesto CRUE por la Eliminación de la Violencia contra las Mujeres

**Madrid, 25 de noviembre de 2025.** La Conferencia de Rectores y Rectoras de las Universidades Españolas (CRUE) se suma, un año más, a la conmemoración del Día Internacional para la Eliminación de la Violencia contra las Mujeres, reivindicando el papel de las universidades como agentes activos en la lucha contra todas las formas de esta violencia.

Según datos de ONU Mujeres, una de cada ocho mujeres de entre 15 y 49 años ha sido víctima de violencia por parte de su pareja solo en el último año. No obstante, allí donde existen marcos legislativos, servicios y sistemas sólidos, sus índices de prevalencia son 2,5 veces inferiores. En España, a pesar de los sistemas de prevención desarrollados, 36 mujeres han sido asesinadas en lo que va de año por sus parejas o exparejas.

Desde CRUE, y en coherencia con la Declaración y Plataforma de Acción de Beijing (1995) —referente internacional en la defensa de los derechos humanos de las mujeres, que este año celebra su 30º aniversario—, reconocemos que la violencia de género continúa siendo un grave obstáculo para el libre desarrollo y la integridad de las mujeres.

A pesar de los avances, esta violencia persiste en múltiples formas, muchas veces invisibilizadas, y se adapta a los nuevos contextos sociales y tecnológicos. Por ello, es necesario adoptar un enfoque integral y transversal, que atienda no solo a las manifestaciones más evidentes, sino también a aquellas que operan de forma más sutil.

En España confiamos en que la renovación del Pacto de Estado contra la Violencia de Género, llevada a cabo el pasado mes de febrero, contribuya a reforzar el compromiso institucional, ampliando las medidas de prevención, protección, reparación y reconocimiento de distintas manifestaciones de la violencia machista no abordadas con anterioridad: la vicaria, la económica y la digital, que amplían el campo de actuación hacia realidades antes desatendidas.

Estas realidades requieren una respuesta coordinada en la que las universidades desempeñemos un papel esencial como generadoras de conocimiento, conciencia crítica y compromiso con la ciudadanía. Como entidades de educación superior, tenemos la responsabilidad ética y social de contribuir a la eliminación de la violencia contra las mujeres desde la formación, la investigación y la acción institucional.

En este contexto, las universidades españolas contamos con unidades de igualdad y protocolos específicos para la prevención y actuación frente a la violencia contra las mujeres, y desarrollamos programas de formación, sensibilización e investigación en esta materia. A través de estas estructuras, no solo ofrecemos apoyo y acompañamiento a las víctimas, sino que también trabajamos para fomentar una cultura institucional de respeto, 2 equidad y corresponsabilidad, contribuyendo activamente al cambio social desde el conocimiento y la educación.

Por todo ello, estamos llamadas a continuar impulsando políticas de igualdad y de prevención de la violencia machista y en un día como hoy proclamamos nuestra voluntad de ser espacios de libertad y respeto, reafirmando nuestro compromiso con la construcción de un futuro libre de violencia contra las mujeres.

## Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna. CRUEren adierazpena

**Madrilen, 2025eko azaroaren 25ean.** Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziak (CRUE) bat egin du, aurten ere, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguneko ospakizunekin, eta unibertsitateek indarkeria mota guztien aurkako borrokan eragile aktibo gisa duten zeregina aldarrikatu du.

NBE Emakumeak erakundearen datuen arabera, 15 eta 49 urte bitarteko zortzi emakumetik bat indarkeriaren biktima izan da bikotekidearen aldetik, azken urtean bakarrik. Hala ere, lege-esparruak, zerbitzuak eta sistema sendoak dauden lekuetan, prebalentzia-indizeak 2,5 aldiz txikiagoak dira. Espainian, prebentzio-sistemak garatu diren arren, aurten 36 emakume hil dituzte beren bikotekideek edo bikotekide ohiek.

CRUEk, eta Beijingo Adierazpen eta Ekintza Plataformarekin (1995) bat etorriz —nazioarteko erreferentea da emakumeen giza eskubideen defentsan, aurten 30. urteurrena ospatzen duena —, aitortzen dugu genero-indarkeriak oztopo larria izaten jarraitzen duela emakumeen garapen askerako eta osotasunerako.

Aurrerapenak aurrerapen, indarkeria horrek hainbat modutan irauten du, askotan ikusezin bihurturik, eta testuinguru sozial eta teknologiko berrietara egokitzen da. Horregatik, ikuspegi integrala eta zeharkakoa hartu behar da, adierazpenik agerikoenei ez ezik, sotilenei ere erreparatuko diena.

Espainian espero dugu Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna berritzeak, joan den otsailean egin zenak, erakundeen konpromisoa indartzen lagunduko duela, aurrez landu ez diren indarkeria matxistaren hainbat adierazpen prebenitzeko, babesteko, konpontzeko eta aitortzeko neurriak zabaltzeko: bikarioa, ekonomikoa eta digitala, lehen artatu gabeko errealitateetara zabaltzen baitute jarduera-eremua.

Errealitate horiek erantzun koordinatua eskatzen dute, non unibertsitateok funtsezko zeregina betetzen dugun ezagutza, kontzientzia kritikoa eta herritarrekiko konpromisoa sortzeko. Goi-mailako hezkuntzako erakundeak garen aldetik, erantzukizun etiko eta soziala dugu emakumeen aurkako indarkeria ezabatzen laguntzeko, prestakuntzan, ikerketan eta ekintza instituzionalean oinarrituta.

Testuinguru horretan, Espainiako unibertsitateek berdintasunerako unitateak eta berariazko protokoloak ditugu emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta hari

aurre egiteko, eta arlo horretako prestakuntza-, sentsibilizazio- eta ikerketa-programak garatzen ditugu. Egitura horien bidez, biktimei babesa eta laguntza emateaz gain, errespetuzko kultura instituzionala sustatzeko ere lan egiten dugu, ekitatea eta erantzukidetasuna, ezagutzatik eta hezkuntzatik abiatuta, gizartea aldatzen aktiboki lagunduz.

Horregatik guztiagatik, berdintasun-politikak eta indarkeria matxista prebenitzeko politikak bultzatzen jarraitzeko deia egiten dugu, eta gaur bezala, askatasun- eta errespetu-gune izateko borondatea aldarrikatzen dugu, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko etorkizuna eraikitzeko konpromisoa berretsiz.